

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1354

280/2025 EBAZPENA, martxoaren 13koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez ondoriorik gabe uzten baita martxoaren 15eko 366/2023 Ebazpena, Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostu bat betetzeko lehiaketaren deialdia egin zuena.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentearen martxoaren 15eko 366/2023 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostu bat lehiaketa-sistema bidez betetzeko. Deialdi hori 2023ko apirilaren 21ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (76. zk.), eta 2023ko maiatzaren 2an Estatuko Aldizkari Ofizialean (104. zk.).

Deialdia ebazteko prozesuak ez du aurrera egin, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen maiatzaren 30eko 612/2023 Ebazpena argitaratzeaz harago. Ebazpen horren bidez, Donostialdeko ESlan Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostu bat betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartu zen, eta zerrenda horretan izangai bakarra dago.

Egiaztatu denez prozesuaren eta aurkeztutako eskabidearen jarraipenari eragiten dioten gerora sortutako arrazoiak daudela, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera, beharrezkoa da deialdi hori ondoriorik gabe uztea.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoriorik gabe uztea Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen martxoaren 15eko 366/2023 Ebazpena, zeinaren bidez Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzu Sanitarioko Buru lanpostu bat betetzeko lehiaketaren deialdia egin baitzen.

Bigarrena.– Goian aipatutako martxoaren 15eko 366/2023 Ebazpenaren bidez hasitako deialdiko izangaiari ebazpen honen berri ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitara dadin erabakitzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia / San Sebastián, 2025eko martxoaren 13a.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentea.

EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa).

Langileen zuzendaria,
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.